

ERRETRATUA



Izena:

Eguna:

Zer da erretratu bat?


Pertsona baten irudia da; betiere, irudiak nahiko garbi utzi behar du pertsona hori nor den. Modeloaren izena ez dakigunean, erretratuari izenburu orokor bat ematen zaio; adibidez: ume baten erretratua, emakume gazte baten erretratua...

Nork eskatzen du erretratu bat egiteko?

Erdi Aroan, erregeek eta printzeek eskatzen zuten, eurentzat eta familiarentzat. Erretratu bat edukitzeak esan nahi zuen margolanean agertzen zenak botere handia zuela. Errenazimentuan, dirudunek (bankariek eta merkatariek) eskatzen zuten erretratuak egiteko. Baldintza bakarra dirua edukitzea zen (eta da), lana erretratugile bati eskatu ahal izateko.

Nola egiten dira taldeko erretratuak?

Mota askotakoak daude: familiakoak, lagunak, gelakideak... Oro har, pertsonak elkarrekin jartzen dira margolariak irudi orokorra egin dezan, eta bakarka, berriz, aurpegiak banan-banan marraz ditzan. Erretratu batzuetan, modeloak ez dira elkarrekin jartzen, eta margolariak denen arteko bilera asmatu behar izaten du erretratua egiteko. Oso zaila da taldeko erretratuei behar bezalako bizitasuna ematea, modelo bakoitzari bere garrantzia emanez.



Aukeratu erantzun egokia kolore desberdinez markatuz.

1. Modeloaren izena ez dakigunean...

- a) margolariak ez zaio izenik jartzen.
- b) margolariak asmatu egiten du margolanaren izena.
- c) margolariak izenburu orokor bat jartzen zaio.

2. Taldeko erretratuetan, pertsonak bakarka jartzen dira...

- a) margolariak margolanaren irudi orokorra egin dezan.
- b) margolariak aurpegiak banan-banan marraz ditzan.
- c) margolariak sinadura jar dezan.

3. Nortzuk eskatzen zituzten erretratuak Erdi Aroan?

4. Zer adierazten zuen erretratua edukitzeak?

5. Eta errenazimentuan nortzuk eskatzen zituzten?

6. Zer behar da, nahitaez, erretratu bat eskatzeko?

7. Taldeko erretratuetan, modeloak elkarrekin jartzen ez direnean, zer egiten du margolariak?

8. Zergatik da zaila taldeko erretratua egitea?

9. Gaur egun, non ikus daitezke erretraturik eta margolanik gehienak?

10. Gaur egun, pertsona baten irudia gordetzeko, zer egiten dugu? Idatzi 3 gauza.
